




**ITUN SOZIOPOLITIKO BERRIRAKO
ESKAINZA**

IZENBURUA: Batuz Aldatu.

Itun soziopolitiko berrirako eskaintza

EGILEA: Batuz Aldatuko Talde Eragilea,
Euskaigintzaren Kontseilua

TALDE ERAGILEKO KIDEAK:

AEK

Agirre Lehendakaria Center

Athletic Club Fundazioa

Euskal Kontsumitzaileen Alkartea

Euskaigintzaren Kontseilua

Eusko Ikaskuntza

Gazte Euskaltzaileen Sarea

Gipuzkoako Erizainen Elkargoa

Mondragon Korporazioa

Nafar Ateneoa

Taupa Mugimendua

Bideratzailea: Aitziber Blanco Goikoetxea

ARGITARATZE-DATA: 2025eko irailaren 26a



1. SARRERA

Testuingurua:

Hamarkada bat baino gehiago da kezka sakona zabaldu dela euskararen normalizazio- eta biziberritze-prozesuaren inguruan, gero eta nabariagoak baitira joan den mendeko 60ko hamarkadan hasitako susperraldia agortzen ari delako zantzuak. Ukaezina da euskarak eta, horrenbestez, euskaldunen hiztun komunitateak pizkunde-garaia bizi izan dugula azken hamarkadetan, eta horretarako gako izan direla herritarren, gizarte-eragileen eta erakundeen ekimena.

Baina datu eta joera soziolinguistikoek erakusten dute aurrerapen-dinamika horretan geldialdia gertatzen ari dela, eta, are, atzeraldian sartzeko arriskua egiazkoa eta handia dela, baita gehien aurreratu den euskal lurraldeetan ere. Izan ere, gizarte-aldaketa sakon eta azeleratuek itzelezko erronka berriak ekarri dizkiote euskarari eta, oro har, minorizatuak eta hedadura txikiko hizkuntza guztiei. Horren erakusle da euskararen normalizazio- eta biziberritze-prozesurako hainbatetan eredu izan dugun katalana ere: 10 milioi hiztuneko komunitatea osatu arren, atzera egiteko mehatxupearan ikusi du bere burua, eta arrisku horri aurre egiteko lanketa berezia egin dute erakundeek zein gizarte-ekimeneko eragileek.

Izan ere, globalizazioaren egungo aldaera muturrekoak eta bizitzaren digitalizazioak errotik aldatu dituzte hizkuntza-praktikak eta hizkuntzekin dugun harremana; hizkuntza hegemonikoei are eta indar handiagoa eman diete, eta minorizatuak oraindik eta zaurgarriago bihurtu dira. Horren ondorioz, besteak beste, ahultasun egoera nabarmenean agertzen da euskararen erabilera soziala: arnagune geografikoen galera gertatzen ari da, edo/eta administrazio-eremu batzuetan, Iparraldean kasu, behearantz doa hiztun-kopuru erlatiboa. Gainera, euskararen kasuan ez dugu ahaztu behar bere geografiaren zati batean baino ez duela ofizialtasun aitortza; hau da, gutxieneko jokaleku parekatuan aritzeko estatus-aitortza eta aukera formala. Gainera, aitortza hori duen eremuan –Arabian, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroako zati batean– ofizialtasuna gauzatzeko aukera nabarmen kaltetzen eta oztopatzen ari da azken urteotan, erabaki judizialen ondorioz.

Bestalde, esan daiteke euskal lurraldeetako orain arteko hizkuntza-politiken paradigma nagusia, kasurik onenean,

gehiago ardaztu dela norbanako euskaldunen eskubide formalen aitortzan, euskara gizarte osoaren jabetzakoa izan dadin baino; beste era batera esanda, gizarte eraldaketan baino gehiago, gutxiengoaren babeserako eredu batean oinarritu dela. Horrek, hizkuntza hegemoniko globalek inguratutako testuinguru batean, minorizazioa gainditu beharrean egoera hori betikotzeko arriskua dakar. Are gehiago, bi komunitate bereiziko gizartea ere osa liteke, eta hori kalte handia izango litzateke gizarte-kohesioaren, justizia sozialaren eta bizikidetzaren ikuspegitik.

Hori guztia aintzat harturik, euskararen aldeko hizkuntza-politiketan jauzi sendo bezain azkar bat egin ezean euskararen eta euskal komunitatearen etorkizuna jokoan dagoela sinetsita eta kezka handi horrek bultzatuta, Euskalgintzaren Kontseilua osatzen duten erakunde eta eragileek egoeraren larrialdia aldarrikatu zuten 2024ko azaroan.

Gizartean ere zabala da euskararen normalizazioaren inguruko kezka; horren erakusle da aktualitate politiko eta mediatikoan gaiak hartu duen indarra, eta atakatik ateratzeko xedez euskalgintzako eremu desberdinetatik lantzen ari diren diagnostiko eta proposamenak. Halaber, azken boladan indartu egin dira, jokaleku politikoan, Euskal Herriko eremu administratibo bakoitzean, estatus politikoan eta erabakimenean sakontzeko proposamenak, besteak beste euskararen estatusa sendotzeko bidean aurrera egitea barne biltzen dutenak.

Gutxi-asko, hau da, 2025 honetan, euskararen normalizazio- eta biziberritze-prozesuak bizi duen testuingurua, baina Batuz Aldatu dinamika lehenagotik ari da lanean, arestian aipaturiko kezka sakona askoz lehenagokoa baita.

Nondik gatzoz:

Hala, Kontseiluak 2019. urtean hainbat eragilerekin kontraste-prozesu bat abian jarri zuen eta, horren ondorioz, 2021eko ekainaren 19an Euskal Herri osoko eta gizarte-arlo ugaritako ehundik gora eragilek bat egin zuten Euskalgintzaren Kontseiluak abian jarritako **'Batuz Aldatu. Hizkuntza-politiketan eragiteko adostasun soziala'** dinamikarekin, euskararen normalizazio- eta biziberritze-prozesuan fase berri bat abiatzeko helburuz.

Itunaren zergatia:

Arestian aipatu bezala, Kontseiluaren baitako eragileek —eta euskalgintzak, orokorrean— aitortzen zuten azken hamarkadetan aurrerapen garrantzitsuak gertatu direla euskalduntzean, eta aurrerapen horiek soziolinguistikan metatutako jakintzari, gizarte-bultzadari eta euskararen aldeko hizkuntza-politikei esker gertatu direla. Baina, era berean, momentuko datu soziolinguistikoak eskuetan eta munduko joerei beha, iritzi zioten ordura arteko eredia jada ez zela aski; aurrera egiteko garaia zela, hizkuntza-politiketan jauzi bat egitekoa, aro berri bat abiatzekoa.

Era berean, argi ikusi zuten jauzi hori adostasun sozialak bultzatuta egin behar zela, hain zuzen ere, hizkuntzen auziaren gaiak gizarte osoa zeharkatzen duelako: denen eskubideak bermatzeko zutoin, gizarte berdinzaleago eta kohesionatuago bat lortzeko giltzarri; euskararen normalizazioan eta biziberritzean aurrera egitea gizarte osoaren eta herritarren onerako dela. Horrenbestez, gizarte-eragile, eragile politiko eta herritar denen ardura eta erantzukizuna da.

Batuz Aldaturen mugarrak:

Hori guztia aintzat harturik, adostasuna gidatuko zuten printzipioak ezarri ziren, eta euskararen normalizazio eta biziberritze-prozesuaren aro berria bideratuko zuten hizkuntza-politikak zehazteko helburua eta oinarritzko bi norabide proposatu ziren Batuz Aldatu dinamikarako. Hona hemen finkatutako xedea:

«Euskararen erabilera erosorako baldintzak sortzea da helburu nagusia. Horretarako, hizkuntza-eskubideak eremu guztietan bermatu beharko dira, hala nahi duen edonork ez dezan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik izan».


Xede horretara iristeko hizkuntza-politika berri horrek izan beharreko bi oinarri edo norabide nagusiak ere definitu ziren:

1. Ezagutzaren unibertsalizazioa.
2. Euskara eroso erabiltzeko guneen sorrera, garapena eta elkarlotzea.

Abiaturuan esan bezala, Euskal Herri osoko eta gizarte-arlo ugaritako ehundik gora eragilek egin zuten bat Kontseiluaren proposamenarekin.

Baina ekimena ez zen horretan agortu. Aitzitik, Kontseiluak konpromisoa hartu zuen adostasun sozial hori zabaltzen joateko eta abiaturuko akordioa mami politiko zehatzagoz janzten joateko. Eta, hain zuzen ere bigarren egiteko hori betetzeko, akordioaren lehen dokumentu haren sinatzaile guztien artetik hautatutako hamaika entitatekin Talde Eragile bat sortu zen, jarritako enkarguaz hausnartu eta bigarren dokumentu baten proposamena lantzeko.

Hainbat hilean jardun du Talde Eragile horrek, ikuspuntuak batuz eta elkarriketa oinarri, hartutako konpromisoa bete nahian. Prozesu horren emaitza da Itun berri baterako Batuz Aldatu dinamikaren bigarren dokumentu honetan aurkezten den proposamena.



Nork egiten du proposamen hau:

Proposamen hau Euskalgintzaren Kontseiluak eta sinatzaile garen ehundik gora eragile sozialek egiten dugu. Oso leku, jarduera, ikuspegi eta genealogia desberdinetatik gatoz, euskal gizartearen aniztasun, zabaltasun eta konplexutasunaren adierazgarri. Itun honek bide bat izan nahi du herritarrak eta gizarte eragileak ohartarazteko euskararen normalizazio prozesuaren garrantziaz, dimentsioaz eta dakarren onuraz. Eta, halaber, egungo egoeraren kinka larriaz. Euskararen normalizazioa eta biziberritzea eraldaketa soziala da, eta, horrenbestez, denon egitekoa. Horren kontzientzia zabaltzen lagundu nahi du, ahalduntze kolektiboa pizten eta aldaketa bermatuko duen zoru partekatua finkatzen.

Nori proposatzen zaio:

Euskal gizarte zabal eta konplexu honi, bere osotasunean, luzatzen diogu proposamena; finean, gizarte-eragile eta herritar orori. Baina, aldi berean, argi izanik norbanako eta erakunde bakoitzak bere posizioa duela botere, ardura eta lidergoen matazan, horren arabera erantzukizun mailakaturik proposatzen dugu. Eragile instituzional eta politikoa daude arduraren eta eragiletasunaren mataza horretako lehen geruzan; eragile ekonomikoak, eragile sozialak, kultur eta akademia eremukoak, hurrenez hurren, segidan; eta herritarrek osatutako multzo zabal, askotariko eta konplexua, azken buruan.

Zer proposatzen da:

Batuz Aldatu dinamika 2021ean abiatu zutenetik hona iragan den denboran, Euskalgintzaren Kontseiluaren baitan, eta, oro har, euskalgintza askotariko eta zabalean, indartu egin dira egoeraren larritasunaren pertzepzioa eta hizkuntza-politiketan jauzi bat egiteko premiaren ziurtasuna; hau da, Paradigma Berri baten beharrarena. Are, 2024ko azaroan euskara eta euskal hiztunen komunitatea larrialdi linguistikoan gaudela adieraztera behartuta ikusi zuen bere burua Euskalgintzaren Kontseiluak, eta pizkunde berri bati zorua jarriko dion Itun Soziopolitiko berri bat are eta indar gehiagoz bultzatzen.

Horrela, hauxe da Kontseiluak luzatzen duen proposamena:

Batuz Aldatu dinamikaren abiaburuan hitzartutako bi oinarri edo norabide nagusietatik abiatuta, hizkuntza-politiketan Paradigma Berria finkatuko duen XXI. menderako Itun Soziopolitikoaren eratzea, lurraldez lurralde egituratzea eta erantzukizuna duten eragileek lidergo berriak aktibatzea, prozesua gizarte eta erakunde maila guztietan gauzatzen joateko.

Ondorioz, dokumentu honetan jasotzen dira prozesu horren nondik norakoak, hizkuntza-politika berrirako akordio-proposamena eta adostasun soziopolitikoaren hedatzeko eta gizarte-elkarrikeria zabaltzeko bide-orria.



2. ITUNAREN XEDE ETA PRINTZPIOAK

XEDEAK:

Ezagutza orokortua, normal erabiltzeko baldintzak:

Itun hau borondate irmo batek gidatzen du, etorkizunean euskal gizarte hobe bat lortu nahi dugu, non herritar denek euskara ezagutuko duten eta normaltasun erabateko erabiltzeko baldintzak izango dituzten. Izan ere, horixe da Euskal Herria ezaugarritzen duen berezko hizkuntzari etorkizuna bermatzeko bidea, eta, halaber, euskaraz bizitzeko aukera eta eskubidearen oinarria. Aldi berean, horixe da hizkuntzen auziari berdintasun ikuspegi batetik erantzuteko modua, justizia sozialean, gizarte-kohesioan eta bizikidetzan sakontzeko bidea, eta, azken buruan, berdintasuna eta askatasuna bermatzekoa. Horrela:

1. **Ezagutzaren unibertsalizazioa:** Herritar denak euskararen ezagutzara iristeko markoa, baliabide, babes eta bermeak sortzeko urratsak bideratzea.
2. **Erabilera normalerako baldintzak:** Zerikusi zuzena du hizkuntza-eskubideen errespetuarekin, euskara erabiltzeari zilegitasun eta normaltasun erabatekoa aitortzearekin, estres linguistikoa gainditzeko baliabideak sortzearekin, harreman horizontalago eta berdinzaleagoak eraikitzearekin eta hizkuntz hautuak askatasunez egitearekin. Baldintza horiek sortzeak elkarrekiko begirada aldatzea ekarriko du.

Estatus-aitortza: Era berean, bilatuko du euskarak bere lurralde guztietan dagokion berdintasunezko ofizialtasun-estatusa izan dezan, hori baita hizkuntz parekidetasunezko gutxieneko lege-zorua, eta euskarak eta euskal hiztun-komunitateak bizi duten minorizazio egoera gainditzeko helburua duten politika publikoak iraunkortasun eta segurtasunez egin ahal izateko oinarritzeko bermea.

Komunitatearen ahalduntzea: Bitartean, eta hau dena prozesu bat denez, ezinbestekoa da euskaltzaileen komunitate linguistikoa emantzipatua garatzea gidaritzarako, gizarte zabalean lan eginda, nagusiki euskaraz bizi den edo/eta euskara bizi duen komunitatea ahaldunduta, zabaldu eta trinkotuta.

PRINTZPIOAK:

Lidergo partekatua eta ardura kolektiboa:

Hizkuntza-politika beti eta eremu eta gune guztietan eta guztietatik egiten da. Euskararen aldeko berrazko neurriak hartzen ez denean, egungo minorizazio egoerari eusten zaio, baita erakunde publikoetatik zein gizarte-ekimenetatik ere, besteak beste. Finean, gizartearen eragina duen guztiak egiten du hizkuntza-politika, ez dago neutralitatearik. Normalizazio-prozesuaren dimentsio politikoa eta soziala estuki erlazionaturik daude. Hortaz, gizarte-ekimenak eta ekimen politikoak norabide berean egin behar dute bidea. Era berean, euskararen normalizazio-prozesua, hizkuntza baten eta hiztun-komunitate baten etorkizuna bermatzeaz harago justizia sozialean, gizarte-kohesioan, bizikidetzan eta askatasunean sakontzeko bidea denez, —hau da, gizarte osoaren onurarako—, gizarte osoarena da ardura.

Zeharkakotasuna: Hizkuntza-politika zeharkakoa da, eta zeharkakotasunez eta eremuen arteko orekaz gauzatu behar da, bereziki politika publikoen arloan.

Progresibotasuna: Hizkuntza-politikak kontuan hartu behar ditu lortu nahi duen helburua eta zein errealitateetatik abiatzen den. Horregatik, behar-beharrezkoa da eremu soziolinguistikoa eta administratiboa bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako prozesua irudikatzea.

Hizkuntza-aniztasuna: Euskararen biziberritze-prozesua Euskal Herrian egun presentzia duten ehundik gora hizkuntzako gizarte-aldaketaren testuinguruan kokatu beharra dago, gizarte eleaniztun askotarikoan. Politika orokorra garatu beharra dago, hizkuntza guztiak balioetsi eta haien errekonozimendutik euskararen biziberritze-prozesurako indargarria izan dadin.

Prozesu adostua: Adostasuna zenbat eta handiagoa izan, ituna orduan eta sendagoa izango da. Horregatik, normalizazioan eta biziberritzean aurrera egiteko, adostasun sozialak eta politikoak eraiki behar dira. Horretarako, hizkuntzaren auzia ikuspegi estereotipatuetatik eta manikeoetatik atera behar da, elkar ezagutza sustatu eta berdintasunean eta askatasunean eraikitako elkarriketa eta harremanen bitartez elkarrekin aurrera egiteko bide berriak bilatu behar dira, elkarren aitortzatik abiatuta.

Garapen integrala: Herritar orok du bere eskubideak berdintasunez garatzeko eta askatasunez baliatzeko eskubidea, bizimoduko eremu guztietan. Beraz, hizkuntza-eskubideak ez dira mugatzen norbanakoek administrazioarekin edo instituzioekin duten harremanera, baizik eta efektiboak izateko bizimoduko eremu guztietan bermatu behar zaie herritarrei euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea; finean, euskaraz bizitzeko eskubidea.

Administrazioa eta eremuak: Euskara ofiziala den Euskal Herriko lurraldeetan, herritar orok dauka dagoen administrazio atalarekin euskaraz harremantzeko eta euskaraz artatua izateko eskubidea, eta administrazioak erantzukizun osoz eskubide hori egikaritzeko bermea eman behar dio herritarrari, edozein dela ere bere zonaldearen egoera soziolinguistikoa.



3. ITUN SOZIOPOLITIKO BERRIAREN OINARRIAK: HIZKUNTZA-POLITIKA BERRIRAKO GILTZAK

Aurreko guztia aintzat harturik, honako hauek dira egin beharreko urratsak, bai euskararen normalizazio- eta biziberritze-prozesuan aurrera egiteko, bai Euskal Herriko berezko hizkuntza den euskarari etorkizun duina emateko, bai herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, bai eta, horrenbestez, justizia sozialean, gizarte kohesioan, bizikidetzan eta askatasunean ere sakontzeko. Beste era batera esanda, hauek dira hizkuntza-politika berri baterako giltzak:

3.1. Eremu instituzional eta politikotik gauzatu beharrekoak:

(* *Proposamenak garatuago, [eranskinean](#)*)

Euskararen normalizazioa eta biziberritzea ardatzeko auzi politikoa da Euskal Herrian, are eta gehiago egungo testuinguruan, etorkizuna bera jokoan sumatzen den honetan. Era berean, instituzio eta eragile politikoei dituzte eremu horretan eragiteko eskumen, gaitasun, botere eta lidergoa; haiek erabakitzen eta gauzatzen dituzte gizarte-harremanak gidatzen eta eraldaketa-prozesuak bideratzen dituzten politika publikoak. Beraz:

Ardatzat dituzten gainerako eremuetan bezala, instituzioek lehentasunezko politika publikoak abiatu behar dituzte euskararen normalizazio eta biziberritzeari dagokionez, kontsiderazio hori emanaz bai araugintzaren arloan, bai eskaini beharreko inbertsio eta baliabideei dagokionez, ausardiaz eta anbizioz jokatzuz. Ezagutza unibertsalizatzea eta erabilera-eremuak sortu eta garatzea dira lehentasunezko politika publiko horien bi norabideak.

Ezagutzaren unibertsalizazioari dagokionez: Hizkuntza-politikak ezinbestean transbertsalak diren arren, honako arlo hauek berariazkoak dira ezagutza unibertsalizatzeko; lehentasunez jokatu behar da arlo hauetan: hezkuntzan (formalean zein ez-formalean), helduen euskalduntze-alfabetatzean, kulturen eta harrera-politiketan.

- **Hezkuntza formala:** Haur eta gazte guztientzat, berdintasunean, beren eskola-ibilbidean euskararen jabe egiteko markoa eta baliabideak ezarriko dira, euskarazko ikasteredua orokortzeko bidean, «euskara gutxien duenari gehiago ematea» printzipio gisa hartuta. Euskararen corpusa ez ezik, euskararen historia, euskal kulturaren transmisioa eta oinarri sozio-linguistikoa ere landuko dira eskolan, eta, oro har, euskaraz bizitzeko motibazioa landuko da espresuki.

- **Hezkuntza ez-formala:** Haur eta gazte askok eremu akademikotik kanpo euskaraz aritzeko gune bakanetakoa dutenez, arlo horretako eskaintza euskaraz izango da lehentasunez.
- **Helduen euskalduntze-alfabetatzea:** Herritar denek dituzte euskara berena egiteko eta ikasi ahal izateko eskubidea eta ardura komunitarioa. Horrenbestez, helduen euskalduntze-alfabetatzea herritar denentzat doakoa ez ezik irigarria izatea ere bermatu behar dute erakunde eta eragile politikoei.
- **Kultura:** Euskararen ekosistema euskal kultura da. Euskaraz jabetzeko, ezinbestekoa da euskal kultura ere jasotzea. Horretarako, berariazko esku-hartzeak egin behar dira hezkuntzako curriculumean, kultur arloko lege eta politiketan, hedabideen eremuan eta ingurune digitalean.
- **Harrera linguistikoa:** Euskal Herria, munduko gainerako leku gehienak bezala, jende-mugimenduen gune izan da historikoki. Beste garai batzuetan euskal herritar askok kanporako bidea hartu zuten bezala, azken hamarkadotan herritar berrien hartzaila izan gara, eta, aurreikuspenen arabera, hori izango da joera datozen urteetan ere. Herritar berriei zor diegun harrera abegikorren baitan, euskara eskaintzeko eta hartaz jabe daitezen baliabide guztiak emateko betebeharra dago. Beraz, euskara ardatz duen harrera linguistikoa osatu, sistematizatu eta martxan jarri behar da, beste une historiko batzuetan bezala euskal herritar berri horiek normalizazio-prozesuaren parte eta indargarri izan daitezen.

Erabileraren eremuan: Erabilera da helburu gorena, zeharka guztia bustitzen duena, eta, ondorioz, bultzagarri izango diren politika publiko sendoak behar ditu. Politika publikoen bidez erabilera bermatzeko guneak sortu, garatu eta elkarlotu behar dira. Halaber, motibazioa landu behar da, hiztun-komunitatea eta herritarrak, oro har, ahaldundu, finean euskaraz ariko den komunitatea elikatzeke.

- **Erabilera bermatzeko guneak:** Bi eratakoak bereiz daitezke, sozio-funtzionalak eta geografikoak. Erakundeek egitekoa da batzuk zein besteak sortzea eta babestea.

- **Gune sozio-funtzionalak**

Administrazioa: Arnasgune sozio-funtzional izan behar du lehentasunez, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eginkizuna duelako eta eraldaketa-prozesuetarako ardatz-gunea delako.

Eremu sozio-ekonomikoa: Herritar gehienek bizimoduaren parterik handiena lan-eremuan gertatzen da, eta, aldi berean, eremu sozio-ekonomikoa gizarte-bizitzaren motor eta baldintzatzaile handienetakoa da. Beraz, erabilera bermatzeko guneak sortzeko eta garatzeko lehentasunezko gunea da hori ere, eta erakunde publikoen egitekoa da arautze eta sustapen-politika publikoen bidez hori gertatzen bideratzea. Arreta berezia jarri beharko dute eremu horretako pertsona zaurgarrienek —sektore prekarizatu eta feminizatuak— langileek —babes berezia izan dezaten euskararako bidean.

- **Arnasgune geografikoak:** Euskararen normalizazio eta biziberritzean muineko traxzio-indarra izanik, eremu horien garapen jasagarria landu behar dute erakundeek, hizkuntza arloko baldintzatzaileak, baldintzatzaile ekonomiko, sozial eta kulturalen elkar-gurutzatuko dituen ikuspegi integratzaile batez.

Motibazioa eta hiztun-komunitatearen ahalduntzea:

Erakundeek eta eragile politikoek praktika, hautu eta politikek eragin handi eta zuzena dute hizkuntzen prestigioan eta erabilera bultzatzeko motibazioan. Era berean, politika publiko transbertsalak ezinbesteko tresna dira euskal hiztun komunitatea ahalduntzeko eta elikatzeko, eta euskararen gaineko iruditeria inklusibo, zabal eta dinamikoa birstutu eta hedatzeko.

Estatua: Euskararen normalizazioan aurrera egiteko egiturazko aldaketak gertatu behar dira, eta botere publikoei dagokie horretarako egin beharreko urratsak modu progresibo eta integralean garatzea; besteak beste, euskara Euskal Herri osoan ofiziala izan dadin urratsak egitea edo/eta administrazioa euskalduntzea, herritar guztien hizkuntza-eskubideen berme gisa.

Arestian aipatutako urrats horiek denak erakundeek aurrera eramane beharrekoak dira, hasi udaletatik eta eremu administratibo bakoitzeko gobernu-erakunde nagusietaraino, nor bere erantzukizun-maila eta eskumenen arabera.

Erakundeekin batera arlo horretan aktore nagusi diren alderdiei dagokie euskararen normalizazioari eta biziberritzeari ardatzezko auzi politikoaren garrantzia ematea, kinkaren larritasuna kontuan izanda, alderdi-interesen gainetik.

3.2. Eremu ekonomikoko eragileek gauzatu beharrekoak:

Eremu ekonomikoko eragileen jarduna gizarte-bizitzaren zutabeetako bat da, ongizatearekin estuki lotzen den heinean eta herritar gehienek beren bizimoduaren zati handi bat lan-arloan ematen duten neurrian. Euskararen normalizazioari eta biziberritzeari gizarte-bizitzako baldintzatzaile guztiek eragiten dietenez, arlo horretako eragileek gauzatzen dituzten erabaki eta praktikak funtsezkoak dira euskararen biziberritze-prozesuak aurrera egin dezan.

Enpresak eta enpresaburu-elkarteak: Presente izan behar da haien jardunak eta erabakiek eragina dutela euskararen normalizazio eta biziberritzean, eta hortik abiatuta komeni da normalizazioaren aldeko eragile izan daitezen. Hau da, haien eragin-gaitasuna eta itzala balia ditzatela ulertarazteko euskara ezinbesteko balioa dela euskal ekonomiarentzat, ongizate eta oparotasunaren parte. Beren enpresetan indarrean jar ditzatela normalizazioarako urrats diren euskara-planak, eta osa ditzatela euskara-planak sistematizatzeko programak bazkide dituzten enpresa eta enpresaburuen artean.

Sindikatuak eta langile-elkarteak: Euskararen normalizazio eta biziberritzea justizia sozialarekin lotuta dagoela eta hizkuntza-eskubideek langileen eskubideen parte direla aintzat harturik, helburu horren aldeko agente aktibo izan daitezela beren jardunaren bidez, besteak beste lan-hitzarmenetan helburu horren alde eraginez. Halaber, langileen eskubideen artean euskaraz lan egiteko eskubidea txerta dezatela.

Eremu horretako eragileek arreta berezia jarri beharko dute langile zaurgarrienek —sektore prekarizatu eta feminizatuak— babes berezia izan dezaten euskarara iritsi eta berena egin ahal izateko.

3.3. Eremu sozialeko eragileek gauzatu beharrekoak:

Arlo zabal, askotariko eta konplexua da eremu soziala, dokumentu honen sinatzaileen multzo pluralak berak erakusten duen bezala. Baina arlo horietako bakoitzean aurrera eramaten diren erabaki eta jardunek, hedatzen diren ideia eta balioek, eragiten dute euskararen normalizazio eta biziberritzean; are gehiago: gizarte-eragiletza eta elkarleen ehuna funtsezkoak dira euskararen normalizazioa eta bestelako eraldaketa-prozesuak gauzatu ahal izateko.

Elkarte, talde eta eragile sozialak: Jabetu daitezela nolako eragina duten euskararen normalizazio- eta biziberritze-prozesuan, eta gizarte-kohesioarekin eta justizia sozialarekin loturiko beste lanketa-eremuen gisa jar dezatela beren ardatzeko konpromisoen artean, zeharkakotasunez. Gizarte-eragiletzan duten gidaritza balia dezatela erakundeak eta eragile politikoak euskararen aldeko politika publikoetan engaiatzera eramateko.

Euskalgintza: Euskararen normalizazio eta biziberritzearen parte da gizarte-ekimenetik eragiletza horretan aritu den ehun sendo bat izatea, euskalgintza alegia. Aurrera begira, prozesuaren aitzindaritzarol horri eutsi beharko dio, baina oso presente izanda osterantzeko eragile sozialen ekarpena eta lankidetzaz ezinbestekoa dituela; hau da, gainerako gizarte-eremuetan gertatzen diren eraldaketa-prozesuetatik ikastea eta haietan ekarpena egitea dagokiola.

3.4. Eremu kultural eta akademikoak gauzatu beharrekoak:

Euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, kultur eta ezagutza-sistema propioa behar ditu, ekosistema bat, unibertso bat. Akademiaren eta kulturaren eremuko eragileak ezinbesteko osagai dira unibertso hori osatzeko, eta hori presente izanda, unibertso hori elikatze boka-zioz jardutea beharrezkoa da.

Unibertsitateak: Ezagutza-arlo guztietako goi-mailako ikasketen euskarazko eskaintza bermatzeko urratsak egiteaz gain, badagokie ikerketa eta ezagutzaren ekoizpena euskaraz egiteko ibilbideak eratzea, euskaratik eta euskaraz jakintza sortzekoa. Euskararen normalizazio eta biziberritze-prozesuak behar duen ezagutza sozio-

linguistikoa berariaz lantzeko konpromisoa ere, besteak beste prozesu horren gidaritza teknikoa eramango duten profesionalak sortzekoa.

Kultur espazio, ekoiztetxe, musika-promotore, argitaletxe eta bestelako kultur eragileak: Euskarazko kultur sorkuntza ardatzean jarrita, unibertso horren eraikitzaile eta parte izatea dagokie; baita unibertso horretarako bide izango den kultur legediaren bultzatzaile sozial izatea ere.

Kulturgileak: Egundaino bezala, haizearen kontra aritza den arren, euskarari unibertso bat emateko konpromisoari eustea dagokie.

3.5. Herritarrek gauzatu beharrekoak:


Gizartearen oinarritzko zutabea da herritar bakoitza. Halaber, euskara, beste edozein hizkuntza bezala, zer abstraktu bat besterik ez da norbanakoetan gorpuztu eta haien arteko harremanetan gauzatzen ez bada. Eraldaketa sozialeko prozesuak norbanakoen erabaki eta ekintzen bidez eramaten dira aurrera, eta, horrenbestez, euskararen normalizazio- eta biziberritze-prozesua milaka eta milaka herritarren konpromisoaren ondorio da. Belaunaldiz belaunaldi, milaka eta milaka norbanakok ekarri dute bizirik euskara gaurdaino.

Erantzukizun zibikoa: Euskararen normalizazio- eta biziberritze-prozesua, euskararen eta euskal hiztun komunitatearen etorkizuna bermatzeko ez ezik, justizia sozialean, gizarte-kohesioan, bizikidetzan, berdintasunean eta askatasunean sakontzeko prozesu bat ere bada. Beraz, gizarte-bizitzarekin eta komunitatearekin engaiatuta sentitzen diren herritar guztien ardurakoa, erantzukizun zibiko bat.

Euskaltzaletasun aktiboa: Euskararen normalizazio eta biziberritzeak orain arte bezala aurrerantzean ere ezinbesteko izango ditu beren konpromiso sozial eta politikoaren ardatzean auzi hau jarriko duten herritarrak: euskaltzale aktiboak. Asko dira euskaltzaletasun aktibo hori aurrera eramateko moduak: norberaren eguneroko eremuetara eramanez —lantokietan, ikastetxeetan, kirol-elkarteetan edo astialdiko gunetan euskara ardatzera eramango duten ekimenak bideratuz edo hizkuntza-eskubideen urraketak salatuz...—, edo euskara-elkarteetan edo/eta euskalgintzako beste egitura batzuetan antolatuz eta haiek babestuz.

3. Sinatzaile guztiok konpromisoa hartzen dugu dokumentua sinatu eta biharamunetik aurrera **elkarriketan** eta **elkarlanean jarraitzeko**, hizkuntza politiketan hartu beharreko neurri zehatzak eta horiek aurrera ateratzeko dinamikak definitzearen. Horretarako, adierazten dugu nork bere erakundearen arloko elkarriketetan parte hartzen jarraitzeko konpromisoa.

[illegible]



ERANSKINAK



ERANSKINA: EREMU INSTITUZIONALETIK EGIN BEHARREKO HIZKUNTZA-POLITIKEN OINARRI GARATUA

HEZKUNTZA FORMALA:

Ikasle euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen ikasteredu orokortua abian jartzea izango da bidea. Ikasteredu horren oinarria euskarazko murgiltze-eredu eleaniztuna izango da, eta egungo ikasleen gaitasun-gabeziei erantzuteko elementu berrituak beharko ditu. Hain zuzen ere, eredu horren ildo nagusiak jasota daude Kontseiluaren *Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen* proposamenean —hezkuntza-eragileekin batera adostutako proposamena—.

Eremu administratibo bakoitzean oso desberdina da egoera, bai eta hezkuntza-eremuan hizkuntza-politikak egiteko abiaburua eta zorua ere. Ituna gidatzen duen progresibotasuna aintzat harturik, Euskal Autonomia Erkidegoan euskara ardatz duen ikasteredu orokortua ezartzeko unea da. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, ordea, ikasle denek beren eskola-ibilbidean euskararen gutxieneko ezagutza jasotzea izango da lehen urratsa.

Bestalde, ikastetxe guztietan hizkuntza-proiektuak garatzeko betekizuna jarri beharko du administrazioak, eta behar beste baliabide tekniko eta ekonomiko ipini, baita etorri berri diren ikasleei arreta berezia eskaini ahal izateko ere. Azkenik, ahozko konpetentziaren eta konpetentzia soziolinguistikoen garapena egoki txertatu beharko da curriculumean.

Horrekin batera, ikasleentzat erabilera erosoak espazioak bermatzea izango dute ardatz hurrengo urteetako politikek, baita motibazioa ere. Izan ere, motibazio afektiboa lantzeko, garrantzitsua izango da euskal kultur transmisioa curriculumean egoki jaso eta garatzea. Ildo berean, komenigarria izango da hezkuntza-komunitate osoak (irakasle, ikasle, guraso...) lankidetzan jardutea, bai eta ikasleen hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten bestelako herri-eragileekin (aisialdia, kulturgintza, ingurune digitala, hedabideak...) modu bateratuan aritzea ere.

Halaber, irakasleen formazio linguistiko eta soziolinguistikoan arreta jarri beharko da, bai eta ikasteko zein irakasteko materialgintza garatzeko baliabideetan ere. Azkenik, ezinbestekoa da hezkuntza formalean erabiltzen diren gailu eta sistema guztiak euskaraz egotea, irakaskuntza digitala baita gaur egungo sistemaren oinarria.

Lanbide-heziketa: Hezkuntza-sistemaren eta lan-munduen arteko lotura da; eremu estrategikoa da, eta berrazko baliabideak beharko ditu. Horrenbestez, arlo profesional berriak euskaraz eskaintzera jo beharko da, eta hezkuntza formalean aipatutako ikasteredu orokortuaren hedapena planifikatu beharko da. Horretarako, irakasle euskaldun elebidunak kontratatu, eta irakasleen formazioan arreta jarri beharko da, bai eta ikasteko zein irakasteko materialgintza garatzeko baliabideetan ere. Ikasleei, bestalde, ikasketa-prozesu osoan zehar hizkuntza-maila hobetzeko baliabideak eskaini behar zaizkie.

Lan-munduekin zubi egokiak eraikitzeko, lantegietako prestakuntzak euskaraz egon daitezen enpresei begirako pizgarriak eta baliabideak ezarri beharko dira, ikasleek praktikak egiten dituztenean tutore euskaldunak izan ditzaten. Azkenik, euskarazko formakuntza-eskaintza duten enpresen erregistroa osatu, eta enpresa horiei lehentasuna emango zaie.

Unibertsitatea: Eremu hori ere zubia da hezkuntza-sistemaren eta lan-munduen artean. Zatiketa administrazioak ezin dira oztopo izan euskaraz ikasi ahal izateko. Euskal unibertsitate-sistemaren barruko lankidetzak sustatu beharko da, eta euskarazko eskaintza guztia erraz tramitzeko moduan eskaini. Aurrez aurreko unibertsitate-eredu klasikoaz gain, online-eredua ere garatu beharko da.

Euskararen ekosistema elikatzeko, ezinbestekoa da eza-gutza euskaratik eta euskaraz ekoiztea, eta ikerketa zein ikerketa-ibilbideak euskaraz garatzeko prozedurak jarriko dira abian. Helburu hori duen irakasle/ikertzaileen komunitate bizi bat sortuko da (bilkurak, kongresuak, argitalpenak, dibulgazioa...). Euskararen erabilera komunikatibo, zehatz eta eraginkorra erakutsi eta transmitituko du komunitate horrek.

Horrekin batera, graduondokoak, masterrak, berezko tituluak, online-titulazioak, doktorego-programak eta tesiak euskaraz egin ahal izateko planifikazioa eta urratsak zehaztu beharko dira. Horretarako, alde batetik, irakasle euskal elebidunak kontratatuko ditu unibertsitateak, eta egun daudenak euskaraz irakasteko prestatu; bestetik, ikasleei hizkuntza-maila egokia izateko baliabideak eskaini beharko zaizkie.

Ildo horretan, euskaraz egindako ikerketek eta ekarpen

zientifikoek sarbidea izan beharko dute mundu zientifiko eta akademikoan. Argitalpen zientifikoak eta dibulgazio akademikoa euskaraz ahalbidetzeko, sustatzeko edo gutxiago ez baloratzeko, ebaluazio-agentziek publikazioen hizkuntza-irizpideak berrikusi beharko dituzte, euskararen erabilerari puntuazio edo balorazio berezitua ematearren.

Azkenik, euskararen normalizazio- eta biziberritze-prozesurako ezinbestekoa da ezagutza soziolinguistikoa sakontzea eta prozesu horren egile izango diren profesionalak formatzea. Unibertsitateei dagokie ezagutza soziolinguistikoa ekoitzi eta partekatzeko sail eta ibilbideak eratzea, eta, halaber, eremuko profesionalak formatzeko gradu eta gradu-ondokoak diseinatu eta abian jartzea.

HEZKUNTZA EZ-FORMALA:

Hizkuntzaren normalizazio-prozesuan oso garrantzitsua da esparru hori, bai euskaraz egiteko espazio erosoak sortzeki begira, baita ezagutzaren unibertsalizazioan ere.

Garrantzi horretatik abiatuz, aisialdi- eta kirol-zerbitzuak eskaintzen dituzten entitateetan hezitzaileentzako beharrezko formazioa ezarri beharko da, helburu hori bere egin dezaten, eta hezitzaile berriek homologatutako formazio hori jaso beharko dute. Formazio horrek, euskarazko gaitasunaz gain, honako alderdi hauei erreparatuko die: estrategia didaktikoak (ikasleek hezkuntza ez-formaleko jarduerak horiek egiteko beharrezkoak diren hizkuntza-erregistroak gara ditzaten) eta euskararen erabilera sustatzeko estrategiak. Halaber, euskara-gaitasuna ere baldintza izango da eremu horretan jardun ahal izateko. Bestetik, egun hezitzaile direnen kasuan, birziklatze-ikastaroak eskainiko dira.

Horrekin batera, kirol- eta aisialdi-eskaintzari dagokionez, guztia (jabetza publikokoa, administrazioak kontratatua edo diruz lagundutakoa) euskarazkoa izango da; are gehiago, irizpide hori jasoko da zerbitzu horien esleipen-baldintzetan. Ondorioz, lerro espezifikoak garatu beharko da hezitzaileen formazioa erregulatze, entitatei bitartekoak eta laguntzak eskaintzeko eta, eremuko hizkuntza-irizpideak arautzeko.

Era berean, hezkuntza ez-formalean diharduten erakunde, elkarte eta bestelakoek, euskarazko zerbitzua eta funtzionamendua osatu bitartean, euskara-planak garatu

beharko dituzte, eta kontrol-mekanismoak ezarri beharko dira plan horiek betetzen direla ziurtatzeko.

Hezkuntza formalean bezala, eremu administratiboan arteko egoera zein estatus-zoru desberdintasuna aintzat hartuta, eta proposamena gidatzen duen progresibotasunari jarraituz, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian aurretiazko urratsak egin beharko dira, hala nola euskarazko eskaintza garatzen hasten sistematikoki, planifikatuta eta lehentasunez.

HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA:

Ezagutzaren unibertsalizazioaren zutabeetako bat den, oso garrantzitsua izango da bere izaera estrategikoa aitortzea. Horrela, honako bi ardatzetan kokatuko dira eremu horretako etorkizuneko erronkak: batetik, euskalduntze-prozesu osoan euskara ikasteko eskubideari erantzuten dion doakotasuna ezartzea litzateke erronketako bat; bestetik, ezagutzaren beharra sozializatzea.

Lehenengoari dagokionez, gizarte-ekimeneko euskaltegi ia gehienek bat egin dute Kontseiluak jorratutako *Doakotasunerantzko bidean* proposamenarekin. Horregatik, bertan jasotzen diren irizpideak baliatuko dira euskara ikasteko eskubidea garatzeko. Bigarrenari begira, euskara ikasteko beharra bultzatzearen inguruko proposamena egin daukate gizarte-ekimeneko euskaltegiek, eta bertan aletzen dira arlo hori jorratzeko oinarriak. Baina, jakina, ikasteko premia beste eremu batzuetako neurriek baldintzatuko dute —esaterako, administrazioko hizkuntza-eskakizunek, eta, beraz, lan-munduan euskararen ezagutzak izango duen balio berezituak—; horregatik, garrantzitsua izango da hizkuntzaren prestigioan eragitea.

Esan bezala, helduen euskalduntze-alfabetatzea estrategikoa da euskararen normalizazio- eta biziberritze-prozesuan: herritar denek dituzte euskaraz jabetzeko eskubidea eta ardura komunitarioa. Hori dela eta, doakoa ez ezik, irisgarria ere izan behar du guztientzat. Horrek esan nahi du lan-eremuan liberazioak eskaini beharko direla, enplegu guztietan, bereziki aintzat hartuta egoera prekarizatuenean daudenak. Horri begira, ordutegi malkuak, irakaskuntza-tresna eta -metodologia berriak eta irakasleentzako etengabeko formakuntza- eta berrikuntza-ibilbideak ezarri beharko dira.

KULTURA:

Hizkuntzak eta kulturak loturik joan behar dute. Hizkuntzak kultur sistema bat dauka atzean. Hizkuntzak eta kulturak herria egiteko ardatz izan behar dute. Euskara ardatz duen kultur ekosistemaren legea garatu beharko da, eta kultur eragile anitzez osatuta dagoen ekosistema gisa aitortu. Lege horrek euskal kulturak behar dituen babes eta sustapen neurriak jasoko ditu. Horrekin batera, euskarazko sortzaileak erdigunera ekarri behar dira, eta funtsezkoa izango da haien lana errekonozitzeko eta babesteko araudia onartzea. Gainera, horrek ekarri beharko luke, besteak beste, euskarazko sortzaileentzako laguntza-sistema abian jartzea, diru-laguntzetatik inbertsio-politikara pasatuko den politika adostuaren bidez.

Halaber, euskal kultur sistema osatuko duten eragileen egitura sortuko da. Egitura horrek lege horren garapena eta horretarako ezartzen diren baliabideen kudeaketa zuzenduko ditu. Egitura horretan bilduko dira euskal kultur sistema osatzen duten subjektuak, besteak beste sortzaile, eragile eta hedabideak.

Legea garatzearekin batera, egitura horrek euskal kulturaren sorkuntza, transmisioa eta ikusgarritasuna lantzeko plan estrategikoa garatu beharko luke. Plan horren baitan jaso beharko dira, aldi berean, kultur espresioak garatzeko azpiegiturarako (euskal liburutegia, euskal dantza-eskola, euskal antzerki-eskola...) beharrak, eta behar horiek asetzeko inbertsioak. Horretaz gain, instituzioek antolatutako edo haiek diruz lagundutako kultur programazioetan, euskaraz sortutako kultur adierazpideak bermatzeko sistema abian jarri beharko da; eta, nola ez, euskara hutsezko kultur arnasguneak babesteko estrategia.

Gaur-gaurkoz euskaraz egiten den sorkuntzaren kalitate-maila altua eztaba da. Dagoeneko punta-puntakoa den euskarazko sorkuntza prestigioatu behar da, duen balioa eman eta alor horretako kontsumo-ohiturak eraldatu. Sorkuntza bera indartu beharra dago, eta horrekin batera sorkuntza horietaz gozatuko duen publiko indartu eta zabaltzeko beharra dago, horri begirako politikak martxan jarrita.

Kultura herrikoia edo/eta nazioartean gaur egun puntan dagoen produkzio kultural askotarikoa euskarara ekartzeko bideak jarri beharko dira, eta, horretarako, itzultzaileei baliabideak eta beharrezko babesa eman beharko zaizkie. Lanbide horren ekarpenak kontuan hartu, balioan

jarri eta prestigioatuko dira, eta kultur sistemak kontuan hartuko du aldagai hori: hizkuntza-politikan eta kulturaren zer-nolako lana eta ekarpenak egiten dituzten.

Azkenik, kultur sistema osoa kontuan hartu behar da, hain zuzen ere sistema oso horrek kulturaren transmisioari, dinamizazioari eta sortzaileen lanari hedapena ematen die-lako. Horrela, kultur sistemak euskararen normalizazioan egiten duen ekarpena aitortu eta balioan jarri beharko da.

ADMINISTRAZIOA:

Administrazioari eskubideen bermatzaile eta eredu izatea dagokionez, bere jardura eta barne-funtzionamendua al bait arinen euskalduntzeko epemuga zehatzak jartzea dagokio; hau da, herritarrei zerbitzu guztiak, idatzizkoak zein ahozkoak, euskaraz eskaini ahal izateko eta bere eguneroko jarduna euskaraz garatzeko epemuga.

Hori zehaztuta, horra heltzeko bidean urratsak egitea dagokio. Horretarako, hona zenbait bide:

Langile berriak eta barne-formazioa: Kontratututako langile berri guztiek euskara-gaitasun egokia izatea bermatu beharko da. Horretarako, lan-deialdietan euskara balioztatzen merituaren sistemari epemuga jarri beharko zaio, eta, epemuga horretara iritsitakoan, merituaren sistema gainditu eta lanpostu guztietan dagozkion funtzioak euskaraz egiteko gaitasun egokia izatea eskatuko da.

Bien bitartean, langileen euskara-gaitasuna hobetzeko bideak eta bitartekoak jarri beharko dira martxan, herritarrekin harremana duten eta ardura-postuak dituzten langileei lehentasuna emanda.

Hizkuntza-irizpideak eta euskara-unitateak: Euskarazko zerbitzua eta barne-jardunean langileen arteko lan-hizkuntza euskara izango dela ziurtatzeko, lanpostuen erabilerarako irizpideak finkatu beharko dira. Horrekin batera, kide guztiek gaitasun nahikoa duten talde edo unitateak osatuta, euren jarduna euskaraz garatuko duten euskara-unitateak izendatu beharko dira.

Herritarrentzako euskarazko zirkuituak: Herritarrei euskarazko arreta al bait arinen bermatu ahal izateko, sailen arteko eta administrazio-mailen arteko euskarazko zirkuituak martxan jarri beharko dira, zerbitzua euskaraz lehenbailehen emateko, zona euskaldunetan bermatuta eta ahalegin berezia eginda herritar asko artatzen dituz-

ten zerbitzu horietan, zona horren euskaldunetan egon ez arren. Horrekin batera, unitateak euskaldundu arte, sakondu beharko da zerbitzua euskaraz jaso nahi duten herritarren eta eskain dezaketen langileen identifikaziorako bideetan.

Kanpo-entitateak: Administrazioa zerbitzu kontratatzaile nagusietakoa denez, bermatu beharko da administrazioen zerbitzuak kudeatzen dituzten entitateek (esleipenak eta azpikontratazioak) administrazioari berari ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzea. Neurri hori administrazioko eremu eta atal guztietan aplikatu beharko da.

EREMU SOZIOEKONOMIKOA:

Urrats sendoak egin behar dira plangintzaren, arauen eta baliabideen kasuan. Izan ere, hutsune nabarmenak dauka urteetan bazterrean utzi izan den esparru horri lotutako corpus juridikoan, batez ere euskararen erabilera normala ezartzeko kontsumo-harremanetan zein lan-eremuan. Horretaz gain, beharrezkoa izango da eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko lanketa eta estrategia guztia barne bilduko dituen plan estrategikoa edo plangintza orokorra garatzea.

Lau eragileei erreparatuta, hona hemen proposamenak:

Administrazioa: Administrazioak ziurtatu beharko du enpresek dagozkien betekizunak behar bezala garatzen dituztela, eta enpresa barruko eraldaketa-prozesuak egiteko beharrezko laguntza eta babesa eskaini beharko dizkie, aurrekontu edo baliabide propioekin.

Aldi berean, enpresei bideratutako edozein motatako dirulaguntza-deialdietan eta bestelako laguntza ekonomikoetan, euskara erabili beharko da puntuazio-irizpide gisa, eta kasu batzuetan, euskara-plana izatea edo/eta beharrezko ziurtagiriak izatea baldintza gisa jarri. Bide beretik, administrazioak eginiko kontratazioetan, klausula sozialen arloan, jaso beharreko zerbitzuaren gainean hizkuntza-irizpideak ezartzea aurreikusi beharko da.

Kontsumitzaileak: Ohiko janari-denda, banketxe, botika, arropa-dendak... euskara normal erabiltzeko eremu bilakatu beharko dira. Horretarako, beharrezkoa da kontsumitzaileen kontsumo-harremanei lotutako hizkuntza-eskubideen aitortza eta bermea eskainiko dituen arkitektura juridikoa edo lege-garapena gauzatzea.

Horrela, ingurune soziolinguistikoaren (arnasguneen tratuera berezia) eta sektorearen izaeraren zein eraginaren arabera, lehentasunezko enpresak finkatu eta epealdi zehatzean enpresa guztietara zabaldu beharko litzateke euren produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaintzeko betebeharra.

Langileak eta enpresak: Euskararen erabilera normalerako eremua izan beharko du lantokiak. Horretarako, garrantzitsua da legez babestea lantokian euskaraz lan egiteko langileen eskubidea. Behin aitortza hori izanda, batetik idatzizko materiala euskaratzeko bidea urratu beharko da; eta, bestetik, ahozko euskarazko harremanak bermatzeko, langileak euskalduntzeko berariazko trebakuntza-planak eskaini beharko dira.

Horrela, lantaldez lantalde, departamentuz departamentu eta entitatez entitate, euskaraz eroso aritzeko aukera eskaintzen duten eremu zehatzak osatuko dira. Horretarako, garrantzia berezia du eremu edo lantalde horietako arduradunak euskalduntzeak. Horri lotuta, langile guztiei lanorduetan euskara ikasteko eskubidea aitortu eta bermatzea bultzatuko da.

Azkenik, hori guztia enpresetan egituratzeko, euskara planak egingo dira, eta derrigorrezkoa izango da berrogeita hamar langiletik gorako enpresetan.

HEDABIDEAK:

Hedabide-sistemaren plan estrategikoa osatu beharko da, euskal hedabideen etorkizuneko erronkak —berezi, aro digitala— lantzeko eta sektorearen garapena zein egonkortasuna bermatzeko. Plan hori euskarazko hedabideen mahaia osatu eta gidatu beharko luke (sektoreko eragileek, instituzioek eta adituek parte hartzen dute mahaian); plan estrategiko horretan hitzartuko dira, halaber, etorkizuneko erronkei aurre egiteko inbertsio-politikak. Inbertsio-politikaren ardatzetako bat produkzio propioa eta euskarazko sorkuntza bultzatzea izango da.

Bestalde, euskarazko hedabideak euskal kulturaren erakusleho izan beharko dira, eta eginkizun hori bermatzeko baliabideak eta tresnak eskura izan beharko dituzte.

Euskarazko hedabide publikoei (irradi eta telebista) dagokienez, hausnarketa sakona egin beharko da, euskaldunontzat erreferentziazko bihurtu daitezen eta euskararen normalizazioari benetako bultzada ematen lagun

diezaioten. Horrek ekarri beharko luke, besteak beste, inbertsioak handitzea honako helburuok: euskarazko ikus-entzunezko edukien sorrera nabarmenki areagotzea, euskarazko hedabide publikoak kalitatezko edukiz hornitzea, eta haur zein gazteentzako edukiak (informazioa, fikzioa eta entretenimendua) sortzea. Halaber, euskarazko hedabide publikoen eta gainerako euskarazko hedabideen arteko koordinazioa eta sinergiak lantzeko, guztiek parte hartuko lukete aurrez aipatutako euskarazko hedabideen mahaian.

Ikus-entzunezkoei dagokienez, baimenak edo/eta lizentziak eskaintzean euskara hutsezko kateek lehentasuna izango dute, eta gainerakoei euskarazko kuotak ezarriko zaizkie. Halaber, ikus-entzunezko telebista-komunikazio lineal irekian zein eskarikoan, euskara bermatzeko kuotak ezarriko dira azpitoluetan, bikoizketetan eta audio-deskribapenetan, bai eta euskarazko sorkuntza bermatzeko ere. Horrekin batera, ikus-entzunezko telebista linealeko zein eskariko telebistako komunikazio-zerbitzuaren katalogoan euskaraz egindako lanei kuota zehatza ezarriko zaie.

Azkenik, **euskarazkoak ez diren hedabideei** dagokienez, euskararen presentzia areagotzeko ildoak zabaldu beharko da: Erdal hedabideetan, euskarazko edukien lanketa handitzeko planak landu beharko dira. Horretarako, lizentzia administratiboak dituzten hedabideetan, lizentziok arautzeko orduan kuota-sistemak erabaki beharko dira. Bestetik, administrazioaren zuzeneko edo zeharkako finantzazioa dagoen kasuetan, euskararen presentzia arautu behar da. Azkenik, hedabideetan egiten den publizitate instituzionala banatzeko orduan, hedabideen hizkuntzaren erabilera aintzat hartu beharko da banaketa horretan: euskarazko hedabideentzat erakundearen publizitatearen zati bat gordeta eta gainontzekoetan euskararen erabileran kuota-sistemak ezarrita.

INGURUNE DIGITALA:

Euskal hiztunek ingurune digitalean euskaraz eroso aritzeko tresna eta baliabideak eskura izan beharko dituzte; hau da, komunikazioa euskaraz garatzeko aukerak bermatuta izango dituzte, baita interakziorako erabiltzen diren baliabide digitalak euskaraz erabiltzeko aukerak ere. Euskarak ingurune digitalean bizi duen egoera kon-tuan hartuta, adostasunean oinarritutako eta euskara ardatz izango duen estrategia digital baten beharra dago. Estrategia digital horrek zenbait erpin ditu.

Edukien eskaintza: Erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatu behar dira; izan ere, gaur egun, Euskal Herriko webguneen % 87k ez dauka euskararik. Euskarazko eskaintza indartu behar da, bai testuak, baita ikus-entzunezkoak ere. Hala, itzulpena nola sorkuntza behar-beharrezkoak dira. Horretarako, estrategia eta plataforma propioak diseinatu eta garatu beharko dira, Euskal Herriko eragile eta administrazioen artean. Interneten euskararen presentzia indartzeko ezinbesteko tresna da .EUS domeinua, eta, horregatik, horren erabilera sustatu behar da esparru guztietan.

Aktibazio digitala: Kanean euskararentzat biziberri-tze-prozesuak aktibatzen diren moduan, ingurune digi-talean ere aktibatu beharko dira. Gizartearen kontzien-tziazioan eragitea ezinbestekoa da ingurune digitalean euskararen erabilera eta kontsumoa sustatzeko.

Burujabetza teknologikoa: Hizkuntza-teknologiak kon-tuan hartuko dituen burujabetza teknologikoa garatzea beharrezkoa da, bide-orri propioa gara dezan. Horre-tarako, euskararentzat garatutako teknologia baliabide tekniko eta ekonomikoez hornitu beharko da.

Nazioarteko ingurune digitaleko enpresekin elkarri-zketa bateratua: Beharrezkoa da halako entitateekin bitartekotza-lanak modu bateratuan egitea. Hau da, nazioartean elkarriketak garatzeko ahots bateratuarekin jokatzeko. Horretarako, administrazioek eta arloko eragi-leek eskuz esku osatu beharko dute lanketa.

Administrazioarako baliabideak: Administrazioa erabiltzaile digital garrantzitsua da. Horregatik, erabilera digitalari bultzada emateko, urrats garrantzitsua izango da administrazioak software guztiak euskaraz lokaliza-tuta izatea eta administrazioako webguneek erabiltzaileei lehen hitza euskaraz egitea. Horrek eragina izango du kontsumoan, eskarian eta, ondorioz, eskaintzan. Horre-kin batera, dirulaguntza-politiketan hizkuntza-irizpideak jarri beharko dira.

Hori guztia lantzeko eta garatzeko, adostutako gidaritza bateratu bat osatu beharko da, estrategia digitalaren ga-rapenaz eta eguneratzeaz arduratuko den entitate legiti-matu bat, beharrezko neurriak adostasunez ezarri ahal izateko. Prozesu horretan, eragile guztien inplikazioa ezinbestekoa da: administrazioa, unibertsitatea, ikerke-ta-zentroak, enpresak eta gizarte-eragileak.

